

SERGIO PREGO

13.02.2015 – 20.04.2015

The Drought eta *The Drowned World* eleberrietan J.G. Ballardek aurkezten dituen bi agertokietan, ingurumenaren aldaketa lazarri batek hankaz gora jartzen ditu toki horietan bizi diren pertsonaien baldintza materialak. Paisaia eratzen duten zeinu konbentzionalak pixkanaka desagertzen dira, eta materialtasun-egitura soil eta gordinago bat agertzen da horren ordez, pertsonaien bizitzaren euskarri gisa. Eraldaketa horiek hutsuneak sortzen dituzte gizartearen egiturari. Barruan, badirudi norbanakoek era arbitrarioan eta ulertezinean aldatzen dituztela beren jokabideak, baina, hala ere, horrek agerian jartzen ditu jokaeretan eta harremanetan lehendik nagusi ziren joera sakonak. Ingurune berriak espazio zabala uzten du bete gabe, eta, hor, pertsonaien joera erreprimituak eman daitezke aditzera, itxuraz alderraiak direla iruditu arren jokabide-eredu bati jarraitzen baitiote pertsonaiok, etorkizun ezezagunari aurrea hartzeko dugun gaitasunetik itzurtzen den helbururen baten ondorioz.

Eskultura bat-batean sartzen da ikusleari dagokion berariazko espazioan, eta horrek ezeztatu egiten du lehen zuen ezaugarria, alegia, irudikatze sakontasuna. Objektuen inguruan bete gabe zeuden espazioetara eramaten du adierazgarritasun hori, orain espazio horiek guztiz opakatuak baitira zehaztapen materialaren aldetik. Egoera berri horrek, materialtasun horrekin eragin-trukea izateko alde aurreko joerak, zabalik uzten du objektuak eraldatzeko aukera. Irekitze horrek soilik adierazten du hutsune bat dagoela, eraldatuak izateko gaitasunean oinarrituta, ikusleak ez baitu jarraibiderik, ez norabiderik eraldaketa horri zentzua emateko. Beraz, egin daitekeen ekintza bere izaera iragankorraren adierazgarria baizik ez da. Hala, bada, objektuak osatugabe eta egoera estatikoan daude, eta hori subjektuak parte hartzeko duen gaitasunaren jarrera harkor gisa hautematen da. Horrek espazio bat zehazten du partekatutako espazio baterako, eta aukera ematen digu beste batekin topo egiteko tokia izateko, norbaitekin proiektu bat partekatze espazioa izateko.

Carreras Múgicako erakusketak hainbat eskultura eta marrazki ditu, eta gehienak eraldaketa materialeko egoera desberdinetan daude. Izaera eskultorikoa duten lanetako batzuk elementu mugikorrek dira, eraldatu daitekeen egitura bat baitute, manipula daitekeena. Beste lan batzuek, berriz, urez betetako mintzak dituzte, eta horiek ere eraldatu daitekeen egitura dute, izaera jariakorra dutelako.

Marrazkiak New Yorkeko Historia Naturaleko Museoko espezie botanikoen landa-marrazkietan daude oinarrituta gehienbat. Gailu babesle baten barruan agertzen dira, hain zuzen, galeriako pareten plano bakoitzak duen perimetroaren dimentsioak dituen mintz pneumatiko zeharrargi batean. Mintza eratzen duen plastiko horrek forma konbexua du, paretak konkor edo irtengune bat balu bezala. Mintz zeharrargiak marrazkien soslaia lausotzen du hein batean, kokapenaren arabera. Marrazki batzuek zehazten dituzten lerroek figurak zedarriztatzen dituzte beren baitan bildu ahala. Lerro batez arlo bat zehaztea mintz bat eratzearen modukoa da, barrua eta kanpoa zedarrizteko, eta barnealdea eta kanpoaldea kudeatzeko. Horixe litzateke organo eta organismo bat definitzen duen oinarritzko funtzioa, hau da, organikoarena. Motibo botanikoen bidez, landareen egitura organikoa islatu nahi da, landareen materiak duen plastikotasunari loturik.



SM-Totem (2015)
Bost elementu instalazioa
Olana eta ura. 330 x 750 x 400 zm



Instalazioaren bista



Instalazioaren bista

Motor Rank (2015). 67 eskulturak, plastikoa eta aluminioa





2+NO (2015). Olana eta ura. Neurri aldakorrak. Hiru elementu instalazioa, 320 x 15 x 300 zm




2+NO (2015). Olana eta ura. Neurri aldakorrak. Hiru elementu instalazioa, 320 x 15 x 300 zm



NHM-1 (2015). Horma instalazioa. Marrazkiak eta politileno haizatua.
25x29 zm








NHM-2 (2015). Horma instalazioa. Marrazkiak eta politileno haizatua. 355 x 500 zm







T-Plexo, (2015). Olana eta ura. 330 x 300 x 15 cm




T-Skeol, (2015). Eskultura, olana eta ura. 330 x 600 x 15 zm




MM(2015). Olana haizatua. Neurri aldakorrak 15 x 240 x 260 zm



MDD, (2015). *Olana haizatua*. Neurri aldakorrak, 15 x 250 x 230 zm



Motor Rank (2015). 67 eskulturak, plastikoa eta aluminioa



Marrazkiak eta poalietieno haizatua. 355 x 500 zm










Motor Rank (2015). 67 eskulturak, plastikoa eta aluminioa



2+NO (2015). Olana eta ura. Neurri aldakorrak. Hiru elementu instalazioa, 320 x 15 x 300 zm



3333 (2015). Eskultura, hormigoia. 70 x 30 x 8 zm

